

ETXALAR TELEZENTROAREN ERABILPEN ARAUDIA

1. Telezentroak sarrera dohaineko da pertsona guztientzat.
2. Telezentroko arduradunak, erabilitako errekurtsoen erregistro bat osatuko du.
3. Erabiltzaileak, Telezentroaren erabilera ordutegia errespetatu beharko dute une oro. Ordutegi honen ardura udalaren esku geratuko da.
4. Telezentroa lan lekua denez, bertan dauden erabiltzaileak errespetatu behar dira, isilik egonez eta gizabidezkoa portaera edukiz.
5. Galarazia dago bertan jan edo edozein motatako edaria kontsumitzea.
6. Erabiltzaileak Telezentroa garbi edukitzen lagunduko dute bertako paper ontzi eta bertzelakoak erabiliaz. Erabilitako errekurtsuak, erabili aurretik topatu ziren egoera berdinean utzi beharko dira.
7. Guztiz debekatua geratzen da aktibitate ilegalak edo bertzelakoak egitea Telezentroan. Ekintza, nahiz eta legeak zigortzen ez badu, Telezentroko arduradunak ez egokia dela kontsideratzen badu, ezingo da egin.
8. Galarazia dago Internet pornografia, terrorismo edo arrazakeri edukiak dituzten orriak bisitatzeko erabiltzea. Aldi berean galarazia dago pertsonen duintasunaren aurkako edukiak bisitatzeko. Telezentroko arduradunak ez egokiak ikusten dituen edukiak saihesten saiatuko da, gunearen erabilera zuzen eta onerako. Arduradunak, erabiltzaileak nabigatutako lekuak kontrolatu eta gainbegiratzeko aukera izanen du, errekurtsuen erabilera txarra ez egiteko.
9. Galarazia dago Telezentroko arduradunaren baimena eta gainbegiratzerik gabe, ordenagailuetan software instalazioak egitea eta edozein biltegitze gailuen erabilpena ere.
10. Erabiltzaile bakoitza erabiltzen ari den ordenagailu eta bertzelako errekurtsuen arduraduna izanen da. Erabiltzaileak errekurtsuak behar bezala ez badituzte erabiltzen edo ekipamenduari behar bezalako tratua ematen ez bazaio, Telezentroan ibiltzeko aldi baterako edo betirako debekua ekarri dezake. Aldi berean salaketa jartzeko aukera izan da.
11. Telezentroan antolatzen diren edozein aktibitatearen aurrean, ikastaroak batez ere, lehentasuna izanen dute. Aldi berean, telelana, lan bilaketa, aktibitate akademikoak, eta antzekoak, lehentasuna izanen dute aisialdiko aktibitateen aurrean.
12. Erabiltzaile bakoitza bere objektu pertsonalak zaitu beharko ditu. Telezentroko arduraduna ez da hauek galtzearen arduraduna izanen. Gelan beharrezkoak diren materialekin bakarrik sartzea gomendatzen da.
13. Erabiltzaileek ustekabeko gertakizunekin edo informatikako tresnak gaizki erabiltzeagatik informazio galtzen badute, Telezentroko arduraduna ez da hauen arduraduna izanen.
14. Guztiz galarazia dago erabiltzaileak altzarien eta bertzelako errekurtsuen kokapena aldatzea telezentroko arduradunaren baimenik gabe.
15. Erabiltzaileak modu zentzudunean erabiliko dituzte telezentroko periferikoak (Inprimagailua, eskanerra, aurikularrak...).
16. Telezentroa derrigortuta dago bertan burutuko diren ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak eta bertzelako ekitaldiak promozionatu eta ezagutzera ematera, baita hauetan parte hartzeko eman behar diren urratsak ere.